

# **FISKALITATEARI BURUZKO AZTERKETA**

2020ko maiatza



[www.lab.eus](http://www.lab.eus)

## AURKIBIDEA

ZERGA-SISTEMA INDARTZEA ETA OINARRI SENDOAK EZARTZEA EKONOMIA ETA JENDARTEA BERRERAIKITZEKO .....	3
HEGO EUSKAL HERRIA EUROPAREN AZKEN MUTURREAN DAGO ZERGA-BILKETAN.....	4
KARGA FISKALEN BANAKETA BIDEGABEA DA ETA LANGILE-KLASEAREN GAIN ERORTZEN DA NAGUSIKI.....	6
KONTSUMOAREN GAINEKO ZERGAK ERREGRESIBOAK DIRA ETA DIRU-SARRERA GUTXIEN DITUZTEN FAMILIAK ZIGORTZEN DITUZTE FISKALKI.....	7
GEHIAGO ETA MODU PROGRESIBOAGOAN BILTZEKO ALDAKETA-PROPOSAMENA:.....	8
ABERASTASUNA IZATEA GAITASUN EKONOMIKOAREN AGERIKO ADIERAZPENA DA, ETA, BERAZ, ZERGAPETU EGIN BEHAR DA.....	8
PFEZ BERRIZ DISEINATZEA, EKITATEA BERRESKURATZEKO ETA ERRENTA GUZTIEK TRATAMENDU BERA JASO DEZATEN.....	10
ENPRESEK ERE LORTUTAKO IRABAZIEN ARABERA EGIN BEHAR DUTE EKARPENA. ....	10

## ZERGA-SISTEMA INDARTZEA ETA OINARRI SENDOAK EZARTZEA EKONOMIA ETA JENDARTEA BERRERAIKITZEKO

COVID-19ren hedapenak eragindako osasun-krisi larriak gastu publikoa nabarmen areagotzea eskatzen du, baita osasun-baliabideak, zaintzaren arreta eta gizarte-babeserako tresnak ugaritzeko aurrekontu-ahalegina ere.

Hildakoen kopuru handia eta pertsonen osasunean eragindako kalteaz gain, **pandemiaren hedapenak ondorio larriak ditu ekonomian, lan munduan eta jendeartean.**

Bi kasuetan, **pertsonak babestea izan behar da lehentasuna.** Bizitzak salbatzeko, osasuna zaintzeko eta diru-sarreraren iturria galdu dutenei edo zaurgarritasun-egoeran daudenei ongizate-maila egokia bermatzeko.

Neurri honetako ezhoiko larrialdi-egoeraren aurrean, premiazkoa da proportzio bereko salbuespenezko neurriak hartzea.

Osasun-sistema indartzeko eta babes soziala hobetzeko, **funts publikoetan inbertsio handia egin behar da, behar beste baliabide bideratuz.** Ekoizpen eta enplegu ehunaren suntsipena geldiarazteko eta, ondoren bata zein bestea suspertzen laguntzeko, sektore publikoak esku hartu behar du, eta kostu handia ekarriko die finantza publikoei.

Egoera horretan, **gastu publikoak gora** egiteaz gain, **zerga-sarrera arruntak nabarmen murriztuko** direla aurreikusten da. Horrek guztiak **zor publikoa handitzea** ekarriko du.

Gainzorpetze horren ondorioz gastu soziala murrizteko politikak ezar ez daitezzen — hala nola iragan hurbilean ezarritakoen modukoak— **zerga-sistemaren diru bilketarako gaitasuna eta progresibitatea indartu behar dira.**

Horrela bakarrik, behin jarduera ekonomikoa berreraikita eta zerga-oinarriak berreskuratuta, itxi ahal izango da finantza publikoetan eragindako zuloa.

Nolanahi ere, epidemia geldiarazteko eta haren ondorioak arintzeko hartutako erantzun-neurriek aurrekontuetan duten eragin handia ekitatez banatu behar da, eta ez orain arte gastu publikoaren finantzaketan gertatu den bezala.

Gaur egun, zerga-sistemaren zerga-karga, nagusiki eta neurritz kanpo, langileriaren eta familien gain dago, lanaren eta kontsumoaren gaineko zergen bidez, hala nola PFEZaren eta BEZaren bidez.

Aitzitik, **lan-errentek eta kontsumoak jasaten duten gehiegizko ahalegin fiskala ez dator bat enpresa-etekinak, kapital-errentak eta aberastasuna zergapetzen dituen fiskalitate murriztarekin.**

Hain zuzen ere, enpresa- eta kapital-errentek eta ondasun handiek ogasun publikoei egiten dieten ekarpen urria **gaizki diseinatutako zerga-sistema bidegabe eta erregresiboaren isla da.**

Gaur egungo egoera mantentzea **etikoki onartezina, ekonomikoki justifikaezina eta sozialki jasanezina da.**

Beraz, aukera ezinhobe hau baliatu behar dugu, zerga-sistemak dituen akatsak eta eraginkortasun eza zuzentzeko:

- Diru-bilketarako ahalmen txikia.
- Zerga-diseinu erregresiboa.
- Iruzur fiskal handia eta zerga-ihesa.

Fiskalitate bidezkoagoa eta birbanatzaileagoa finkatzeko hemen proposatzen ditugun aldaketak ez lirateke salbuespenezkoak edo aldi baterakoak izan behar; aitzitik, behin betiko txertatu behar dira, hiru helburu nagusi lortzeko:

- **Diru-sarrera publikoen bolumena handitzea**, funtsezko zerbitzu publikoak blindatzeko.
- **Zerga-ekitatea eta zerga-progresibotasuna bermatzea**, aberastasun gehien metatzen dutenek eta diru-sarrera handienak dituztenek ekarpen handiagoa egin dezaten.
- **Zerga-sistemak** desberdintasunak murrizteko eta pobrezia-aren aurka borrokatzeko **duen banaketa-gaitasuna hobetzea.**

## **HEGO EUSKAL HERRIA EUROPAREN AZKEN MUTURREAN DAGO ZERGA-BILKETAN**


Estatistika ofizialen arabera, Europaren azken muturrean gaude diru-sarrera fiskalen bilketari dagokionez, gure ekonomia kontutan hartzen badugu, arrazoizkoa litzatekeenik oso behera.

Zehazki, Hego Euskal Herriko presio fiskala BPGren %30,9 ingurukoa da, zuzeneko eta zeharkako zergen bidez (udal-zergak barne) eta gizarte-kotizazioen bidez bildutako zerga-sarreraren guztizkoa kontuan hartuta.

Europar Batasuneko batez besteko presio fiskala BPGren %39,2koa da, eta eurogunekoa, berriz, %40,6koa. Horrek esan nahi du diru bakarraren klubarekiko dugun bilketa-arrakala BPGren ia hamar (9,7) punturen parekoa dela; eta haren bilakaera historiko berrienak ez du joera zuzentzailerik adierazten.

Azterketa konparatibo horrek erakusten du **Hego Euskal Herriko administrazio publikoek espero genezakeena baino %31 gutxiago biltzen dutela ekonomiak sortutako aberastasunaren arabera**, jakina, beti ere ahalegin fiskala euroguneko batez bestekoaren antzekoa balitz.

**Presio fiskala Hego Euskal Herrian eta Europar Batasunean**  
**BPGaren portzentaia bezala (2018)**



Iturria: Norberak egina; Eurostat, Eustat, Nastat eta Gizarte Segurantzako Altxortegi Nagusiko datuekin.

Europar Batasun osoan lau Estatu baino ez daude gurea baino apalagoa den presio fiskala dutenak: Irlanda, Errumania, Bulgaria eta Lituania.

Hortaz, nabarmena da **tarte zabala dagoela biltze-gaitasuna handitzeko**, eta modu honetan, prestazioak eta izaera soziala duten zerbitzu publikoen eragikortasuna indartzeko.


## KARGA FISKALEN BANAKETA BIDEGABEA DA ETA LANGILE-KLASEAREN GAIN ERORTZEN DA NAGUSIKI

Garrantzitsua da zenbat biltzen den ikustea, baina baita ere nola biltzen den eta aipatu baliabideak nork jartzen dituen erreparatzea. Horretarako beharrezkoa da zerga-sistemaren egitura aztertzea.

Honekin lotuta, argigarria da aipatzea **foru-ogasunek biltzen dituzten 100 euro bakoitzeko, euskal familiek 75 euro baino gehiago ematen dituztela** PFEZ eta BEZ bidez, enpresek, berriz, 8 soilik bideratzen dituzte Sozietate Zergaren bidez.

Gainera, zerga bidezko sarreraren beste %11 zenbait ondasunen kontsumoa zergapetzen duten Zerga Bereziatik dator (hidrokarburoak, elektrizitatea, alkohola, tabakoa...). Zerga hauek, BEZak bezala, eragin erregresiboa dute errentaren birbanaketan, familia pobreenak neurri handiagoan zigortzen dituztelako.

### Hego Euskal Herriko zerga-egitura. Zerga kontzertatuengatik bilketa 2019an



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saila, eta Nafarroako Ogasuna.

Aberastasunaren gaineko zergei eta jabegoen metatzearen gainekoei dagokienez, merezi du azpimarratzea Hego Euskal Herrian Ondarearen gaineko Zergak bilketa osoaren %1 soilik suposatzen duela.

Ondarearen gaineko Zergarekin batera badira beste zerga-figura batzuk aberastasuna eta jabegoaren gaineko zergen kategorian sartzen direnak<sup>1</sup>, hala nola, Ondorengotza eta Doaitzen gaineko Zergak, Ondare Transmisioaren gainekoa eta Dokumentatutako Ekintza juridikoen Zerga.

Lau zerga hauek ekarpen bateratuak kontzertatutako zergetatik datozen sarrera guztien %3,4 suposatzen du (%3,2 EAEn eta %3,8 Nafarroan).

<sup>1</sup> Bilketaren aldetik garrantzia txikiagoa duten beste zerga batzuk dira banku-deposituen zerga, merkataritza establezimendu handien gainekoa eta loteria, joko eta apustuen sarien gainekoa.

### Zerga egitura bilketaren arabera 2019an

	EAE	NAF	HEGOALDEA
PFEZ	%36,9	%38,9	%37,3
BEZ	%39,0	%33,6	%37,9
Zerga Bereziak	%10,3	%13,6	%11,0
Sozietateak	%8,4	%7,0	%8,1
Jabegoaren gaineko Zergak*	%3,2	%3,8	%3,4
Gainontzeko zergak	%2,1	%3,1	%2,3
<b>Zerga Kontzertatuak guztira</b>	<b>%100,0</b>	<b>%100,0</b>	<b>%100,0</b>

Ezartzen zaigun zerga egituraren ikuspegi osoagoa izateko komenigarria da gogoraraztea PFEZ zerga lanaren errenten gaineko zerga dela nagusiki, estatistika fiskalek erakusten duten moduan.

PFEZn aitortutako errentak errenta orokor eta aurrezkiaren errenta bezala sailkatzen dira. Eta EAEko Zerga Koordinazioaren Organoaren<sup>2</sup> arabera pisu handiena duen errenta orokorraren osagaia lanetik eratorritako errentek osatzen dute eta zerga-oinarri orokorraren %91,5 suposatzen dute.

Gainera, kuota oso orokorrak PFEZrengatik ordaindu beharreko batura osoaren %91,4 suposatzen du (kuota osoa guztira), aurrezkiaren kuota osoak (kapitalaren errentei eta zenbait ondare gehikuntzari dagokion zatia) gainontzeko %8,6a suposatzen duen bitartean.

Hortaz, baieztatu dezakegu **PFEZen bilketaren ia %84 laneko errentetatik datorrela**. Era berean, **Nafarroan ere aitortutako errenten %87a lanetik dator**, PFEZen azken Azterketa Soziometrikoaren arabera.

Bestalde, komeni da ez ahaztea negozio txikien jabe den langile-klaseko sektore bat ere bere lan pertsonaletik bizi dela, nahiz eta bere diru-sarrerak ez diren lan-errentatzat hartzen eta jarduera ekonomikoen etekin gisa ordaintzen dituen zergak.

### **KONTSUMOAREN GAINEKO ZERGA ERREGRESIBOAK DIRA ETA DIRU-SARRERA GUTXIEN DITUZTEN FAMILIAK ZIGORTZEN DITUZTE FISKALKI**

Zeharkako zergek ondorio erregresiboa dute, desberdintasunak zuzendu beharrean, errenten banaketa desberdina areagotzen laguntzen dutelako.

Izan ere, familiarik pobreenek eta diru-sarrera gutxien dituztenek oinarritzko ondasunak kontsumitzera bideratzen dituzte baliabide urri guztiak, eta ez dute aurrezteko ahalmenik. Aitzitik, familia aberatsenek eta diru-sarrera handiagoak dituztenek beren

<sup>2</sup> Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Integratua 2017

errentaren proportzio txikiagoa bideratzen dute kontsumora, eta, horregatik, zeharkako zergen bidez ahalegin fiskal txikiagoa egiten dute.

**BEZa da inpaktu erregresibo handiena eragiten duen zerga**, bere izaera propioaz gain (kontsumoa zergapetzen du zergadun bakoitzaren errenta-maila edozein izanik ere), diru-bilketan pisu handia duelako.

Gai horri buruz egin diren azken ikerketek<sup>3</sup> adierazten dutenez, diru-sarrera txikiak dituzten familien %20k batez beste jasaten duten BEZaren karga fiskala euren errentaren %15 ingurukoa da. Diru-sarrera handienak dituzten familien %10ak errentaren %6 baino ez dute bideratzen BEZaren ordainketetara.

## **GEHIAGO ETA MODU PROGRESIBOAGOAN BILTZEKO ALDAKETA-PROPOSAMENA:**

### **ABERASTASUNA IZATEA GAITASUN EKONOMIKOAREN AGERIKO ADIERAZPENA DA, ETA, BERAZ, ZERGAPETU EGIN BEHAR DA**

Zerga-sistema oro egituratu behar duten printzipioen artean, **berdintasun- eta progresibitate-printzipioak** nabarmendu behar dira. Logikoa denez, bi arau horiek betetzean, kontuan hartu behar da zerga-karten banaketa zehazteko, zergadun bakoitzak duen gaitasun ekonomikoa gastu publikoari eusteko.

Teorian, gaitasun ekonomikoaren ageriko hiru adierazpen daude: errenta, kontsumoa eta aberastasun metatua.

Lehenengo biei dagokienez, ikusi dugu, praktikan, **indarrean dagoen zerga-ereduak presio fiskala lan-errentetan eta kontsumoaren gainean jartzen duela, eta enpresa-mozkinek eta kapital-errentek, berriz, ekarpen txikiagoa egiten dutela**. Bestalde, **aberastasunaren gaineko fiskalitateak ia ez du eraginik**.

Zerga-politika horrek **baliabide publikoen galera handia dakar, aberastasunari eta aberastasun handiei fiskalitate bidezkoagoa eta ausartagoa aplikatuztik bil daitezkeenak galtzea dakar, alegia**. Eta, gainera, zerga-eredu horrek birbanaketa-ahalmena kentzen dio zerga-sistema osoari.

Berriki, Europa mailan aberastasunaren gaineko zerga berezi eta progresibo bat sortzeko zenbait ekimen jarri dira martxan. Europako Barne Produktu Gordinaren %1 bildu nahi du urtero, eta, horrela, hamarkada bateko epean kitatu nahi du osasun krisiak eta krisi ekonomikoak sortuko duen zorra.

---

<sup>3</sup> *Familien arteko zergen banaketari buruzko Behatokia* (2019), Ekonomia Aplikatuko Azterlanen Fundazioak argitaratutako txostena. Azterlanaren eremua Espainiako Estatuko etxe guztiak dira, baina ondorioak guztiz baliagarriak dira Hego Euskal Herriko lurraldeetarako, BEZa araudi erkideak araututako zerga baita.



Gure kasuan, figura hori **Ondarearen gaineko Zergak** bete lezake. Hala ere, horretarako **ezinbestekoa izango litzateke** zerga horren **erreforma sakona** egitea, bazterreko zerga-figura izateari utz diezaion.

Zergaren diseinuari dagokionez, **berrikusi** beharreko kapituluetakoa bat haren araudian jasotako **zerga-salbuespen eta -hobariei** buruzkoa da.

EAEko 2020rako gastu fiskalen aurrekontuaren arabera, **onura fiskal horiek aplikatzeak** teorian bildu litezkeen **diru-sarreren erdia baino gehiago (%57,9) galtzea ekarriko du**. Zehazki, 232 milioi euro inguru.

**Nafarroako Gobernuaren** aurrekontuaren arabera, **gastu fiskal horien faktura bilketa teorikoaren %51,3 izango da**, hau da, 41,6 milioi euro inguru.

Horri gehitu behar zaio PFEZaren eta Ondarearen kontribuzio bateratuagatik ordaindu beharreko gehieneko muga bat dagoela, eta muga horren ondorioak ez daudela jasota aipatutako gastu fiskalen aurrekontuan.

Gainera, aplikatutako karga-tasak oso txikiak dira. Eta ondare-ondasunak baloratzeko irizpideak ez dira objektiboak, eta ez dute zerikusirik haien benetako balioarekin.

Aipatutakoari atzerrian dauden aberastasun "deslokalizatu" handiak eta zerga-ihesaren maila handia gehitzen badizkiogu, zerga horren bilketa eskasaren arrazoen erradiografia zehatza egin dezakegu.

Hain zuzen ere, alderdi horiek aztertu eta zuzendu behar dira aberastasunaren gaineko presio fiskala indartzeko.

Orain inoiz baino **premiazkoagoa da metatutako aberastasunaren gaineko zerga eraginkor bat izatea**. Aukera ezin hobea da aberastasun handiak metatu dituzten pertsonak jendarteari itzul diezaioten modu batean edo bestean jendartetik lortu dituzten irabazien zati bat.

Zalantzarik gabe, nazioartean koordinazio handiagoa izatea erabakigarria izan liteke paradisu fiskalak mugatzeko, lurraldeen arteko lehia geldiarazteko eta aberastasun handiek zerga-jurisdikzio laxoago batzuetara ihes egitea saihesteko. Edonola ere, zentzu horretan akordiorik ez egoteak ez du aitzakia izan behar gure foru-ogasunen konpromisorik eza justifikatzeko.

Une honetan, **elite ekonomikoek eta enpresa-elkarteek gehiegizko presioa egiten dute aberastasunaren eta enpresa-errenten edo kapitalaren gaineko fiskalitatea murrizteko**; aldi berean, **borondate politikoa falta da zerga-sistema bidezkoagoa eta progresiboagoa diseinatzeko, gehien dutenek gehiago ordain dezaten**.

## **PFEZ BERRIZ DISEINATZEA, EKITATEA BERRESKURATZEKO ETA ERRENTA GUZTIEK TRATAMENDU BERA JASO DEZATEN**

40 urte baino gehiagoko historian, PFEZak aldaketa ugari jasan ditu, eta apurka-apurka ekitatearen eta progresibitatearen printzipioak saldu egin dituzte. 2007tik aurrera PFEZ zerga dual bihurtu zen, eta horrek esan nahi du lortutako errentak bi motatan banatzen direla eta tratamendu desberdina jasotzen dutela jatorriaren arabera.

EAEEn, lan-errentak %23tik %49ra bitarteko karga-eskala progresiboaren arabera zergapetzen dira. Kapital-errentei (edo aurrezki-errentei), berriz, beste eskala bat ezartzen zaie, zerga-tasa txikiagoeta ez hain progresiboekin, %20 eta %25 artekoa.

Nafarroan, lan-errentak %13 eta %52 arteko karga-tasak dituen zerga-tarifa baten mende daude. Kapitalaren etekinak, berriz, %20tik %26ra bitarteko zerga-tasarekin zergapetzen dira.

PFEZak izaera integrala berreskuratu behar du, errenta-iturri guztiek tratamendu bera jaso dezaten eta karga-eskala progresibo bera izan dezaten.

Nolanahi ere, oraindik badago tartea errenta handienei gehieneko karga-tasa handitzeko. Danimarkako gehieneko tasa marjinala %55,9koa da.

Eta ez dago soberan gogoratzea 1978an PFEZ onartu zenean, krisi ekonomiko betean, 28 errenta-tarte eta %65,5eko gehieneko tasa aurreikusi zirela.

## **ENPRESEK ERE LORTUTAKO IRABAZIEN ARABERA EGIN BEHAR DUTE EKARPENA**

Covid-19aren pandemiaren hedapenak eragin duen jarduera ekonomikoaren gainbeherak isla negatiboa izango du enpresa gehienek emaitzetan.

Hala ere, **garrantzitsua da Sozietateen gaineko Zerga egokitzea** susperraldi ekonomikoa gertatu eta horrekin enpresak irabazi egoerara itzultzen direnerako.

Europako Parlamentuak zerga-ihesaren aurkako borroka areagotzeko sortutako TAX3 izeneko batzorde bereziaren ondorioak eztabaidaezinak dira zerga-eskumenak izan dituen ondorio kaltegarriei dagokienez.

Batzorde horren arabera, inbertsioak erakartzearen aitzakian, estatu guztiek beren estrategia propioak hartu dituzte enpresen mozkinen gaineko zergak murrizteko lasterketa arriskutsuan.

Eta praktika horien ondorioz, zergaren tasa nominala nabarmen murriztu da Europar Batasun osoan, 2000. urtean %32ko batez bestekoa izatetik 2018an %21,9ko batez bestekoa izatera igaro baita.

Baina, tasa nominalen etengabeko murrizketaz gain, hobari, kenkari eta pizgarri fiskal ugari ere gehitu dira, zergaren oinarria higitu eta enpresen zerga-betebeharrak murrizten dituztenak.

Horregatik, **alde handia dago enpresei aplikatutako karga-tasa nominalaren eta benetan ordaintzen duten tasa efektiboaren artean.**

Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Bateratuaren arabera, Arabako, Bizkaiko edo Gipuzkoako foru-araudiaren mende dauden enpresek ordaintzen duten batez besteko tasa efektiboa %18,9 ingurukoa da. Horrek esan nahi du nabarmen jaitsi dela 2017an aurkeztutako likidazioen batez besteko %25,3ko tasa nominalarekiko.

Bide batez gogoratzekoa, beren ezaugarriengatik estatuko zerga-araudiaren mende dauden enpresek batez besteko tasa efektibo altuagoa ordaintzen dutela: %24,5.

Beraz, Sozietateen gaineko Zerga lehiarako tresnatzat hartzeko argudio faltsua erabiliz, azpimarratu behar da **foru-araudiaren mende dauden enpresek abantaila argiak dituztela hurbilen dituzten lehiakideen aldean.**

Nafarroako Ogasunaren arabera, batez besteko tasa nominala %25,7koa da. Baina hobari eta kenkari fiskalak deskontatu ondoren, batez besteko tasa efektiboa %17,2an geratzen da.

Egoera horren aurrean, **lehenik eta behin, kenkari eta pizgarri fiskal guztiak kentzea proposatzen dugu**; izan ere, egiaz, enpresei zergak jaisteko mekanismo bat baino ez dira, baina ez dute eraginkortasun txikienik ere teoriar jartzen zaizkien helburuak lortzen laguntzeko.

Horrela lortuko litzateke enpresek ordaintzen duten tasa efektiboa tasa nominalera hurbiltzea. Gainera, batez ere enpresa handiei laguntzen dieten zerga-murrizketak dira, horiek baitira pizgarri horiek eskuratzeko erraztasun handiena dutenak.

Bigarrenik, **ezinbestekoa da Sozietateen gaineko Zerga erabiltzeari uztea lurraldeen arteko zerga-lehia elikatzeko** eta bi hamarkada baino gehiagoan onartutako karga-tasen beherapenak lehengoratzeko.

Azkenik, eta ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, **premiatzekoa da paradisu fiskalen eta etekinen desbideratzearen aurkako borroka gogortzea**, fiskalitate nulua edo oso txikia duten jurisdikzioetara bideratuz.